



# RING



EVAREN  
ALABAK

Maite Ortega Zubikarai 688680925 [alara@alara.eus](mailto:alara@alara.eus)

## Sinopsia

Ring batean sartzen diren bi aktoreekin hasiko da antzezlan. Bata gizonez jantzita dago eta bestea emakumez. Ikusleek ring-a inguratzen dute. Aurkezle batek pertsonaiak iragarri eta ikuskizuna hasten da. Lehenengo round-a iragartzen duen kartela erakusten duen modeloa agertzen da.

Modeloa egoeraren aurka altxatuko da antzezan berberaren arauak hautsiko dituelatik. Gertaera honek antzerki konpainia osatzen duten lau emakumeengan krisi bat eragingo du: zuzendariarengan, lehen aurkezlea zena, eta antzezaneko beste 3 aktoreengan.

Orduan, benetako borroka, barne-krisi bat eta plan sekretu baten sorrera hasiko da, honek jendearen partaidetzan eragingo duelarik.

## Antzezanatik haratago

Proiektu honek proposamen dibertigarri eta arriskutsua dakar, gizartearen aurrerapena eta balio demokratikoak eskatzen dituena. Antzezanak arazo bat aurkezten du: batetik, gure diskurtso feministaren eta gure jokabidearen artean ditugun kontraesanak eta emakumeen gorputzaren gaia, zeinak balio sistema zehatz batetik zahartzaroa, loditasuna edo inperfekzioa baztertzen dituen zapalkuntza jasan duena. Eta bestetik, portaera matxistak eta bortitzak aldatzeko indarkeria erabili behar den ala ez. Horrela antzezan bizia, kritikoa eta aktiboa sortzen da bere buruaz hitz egiten duena, autoerrepresentazio bat ematen delako eta haratra, beste pieza baten barruan dagoen pieza bat eratzen da.

“Ring” umorezko antzezlana da, izan ditzakegun oztopo edo autozuzenketa aurrean ez da errebeldia eta autokritika falta, emakume garen bezala erakusteko konpromisoa hartzen gaituzten gaien erresistentziatzat ager baitaitezke.

## Proposamen artistikoa

Proposamen artistikoa batez ere bere gertutasun eta sinpletasunarengatik definitzen da. Dena ikusleen begi aurrean egiten da. Bereziki antzezlanak ikustera datozen pertsonekin sortzen den konexioa interesatzen zaigu. Ez dugu ikusle hutsak soilik izaterik nahi, eszenan gertatzen ari denaren inguruan pertsona horiek izaten duten identifikazioa interesatzen zaigu. Jendea emozionalki eta fisikoki harrapatu nahi dugu. Antzerki honen funtsa proposamenaren biluztasunean oinarritzen da, aktoreek publikoarekiko sentitzen duten zahurgarritasunean, eta alderantziz. Herri bakoitzean, emanaldi bakoitzean, antzezle eta ikusle guztiek sortutako giroarekin berregin eta aurkitzen den antzerkia da. Antzerki bizia eta zirraragarria da.

Eszenako hizkuntza, sinpletasunari lotutako hizkuntza estetikoa da, Peter Brook-ek idazten duenari balioa emanez: "Edozein espazio huts har dezaket eta eszenatoki biluzi dei diezaioket. Gizon bat espazio huts horretan dabil, beste batek begiratzen dion bitartean, eta hori da antzerki-ekitaldi bat egiteko behar den guztia." Proiektu honetan artifiziosuari eta handikeriari ez zaio dimentsio berezirik ematen. Sintesia eta aktoreak, publiko gisa parte hartzen duten pertsonekin batera, errealitatearen benetako sortzaileak izango dira.

Beraz, dramaturgiak ideia horrekin batera joan behar du, pertsonaiak identifikatzen laguntzeaz gain. Eszenografia antzezlanaren testuinguruak, funtsak eta formak zeharkatzen eta definitzen du. Aktoreak soken kontra sentitzen dira, metaforikoki eta fisikoki, soka horiek existitzen dira, eta RING osatzen dute, ikus-entzulez inguratuta.

# Helburuak

## Helburu orokorrak

- Udalerrri txiki eta landako udalerrietan balio demokratikoak eta gizartearen aurrerapena sustatzea
- Antzerki-hizkuntza "artibista" (artistikoa eta aktiboa) bultzatzea, gizarte-errealitatea ezagutzeko eta eraldatzeko modu gisa.
- Antzerki formatu bizia, originala, berritzailea eta gaurkoa sustatzea.
- Antzerkia egiteko modu freskoak probatzea, formatu erraz, zuzen eta autokudeagarriekin.
- Oso emakume desberdinen belaunaldien arteko antzerki-elkarreragina bultzatzea, adin ezberdinak hartuz, nahiz eta esperientzia eta erronka komunak izan. Beraz, adin guztietako jendearen parte-hartzea sustatu eta bultzatu.
- Oinarritik eta hau lehunduko duten filtro eta argiztapenik gabe erakutsitako probokazioa. Publikoaren aurrean askatzailea den bide baten bidez aktoreen agerpen probokatzailea: ezarritako edertasun-kanonak haustea eta gure gorputzaren gaineko gizarte-kontrola askatzea.

## Zeharkako helburuak

- Gizartean erabat parte hartzea eta gizaki gisa duen potentziala egitea eragozten dieten bideak eta emakumeei eragiten dietenak aztertzea.
- Kontzientzia kritikoa sortzea eta tresna indibidualak nahiz taldekoak sendotzea, gure errealitatean dauden indarkeriei aurre egiteko.
- Sormen-ingurune bat bultzatzea, emakumeek bereizkeria-egoeren ezagutza eta onarpena sustatu ahal izateko, eta egoera horiek inoren borondateen mende jartzeko.
- Ikusezina ikusarazi. Gure eguneroko errealitate txikietan ezkutatutako une guztiei aurpegia eta hitzak jartzea, oharkabean gertatzen zaigunari arreta jarritz,

Maite Ortega Zubikarai 688680925 alara@alara.eus

eta hori ez dugu ikusten gaizki ikasitako ohitura delako.

Maite Ortega Zubikarai 688680925 alara@alara.eus

- Emakumearen jabekuntza arte eszenikoetan eta bizitzan, pasioz, argitasunez, errespetuz eta umorez. Erantzukizunak onartzen.
- Parte hartzaileekiko lotura eta erresonantzia, garen bezala erakusteko askatasuna ahalbidetuz.
- Gure kontraesanak bizitzea, hausnartzea, emakumearen ikuspegiarekin eta norberaren esperientziarekin alderatzea, eta gure akatsei, gure lehentasunei eta jaso ditugun ikasketei buruzko ikerketa egitea.
- Biktimismotik ihes egitea, bizitasuna emanaz.
- Prototipoetatik argi eta irmo urruntzea, edozein dianaren erdian jartzeko prest, bizitzan ezer ez baita hain argia eta inor ez baita agertzen maskararik edo mozorrorik gabe. Gu ere bai.
- Ikusleen eta aktoreen arteko espazio intimoa eta konfiantzazkoa ezartzea, bertaratutako guztiak besarkada partekatu batean bilduko dituen espazioa.